



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko maiatzaren 11

51. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Kontingentzia Plana, Nafarroako Parlamentuan jarduera presentzialera itzultzeari buruzkoa (2. or.).
- Nafarroako Parlamentuan jarduera presentzialera itzultzeko protokoloa (9. or.).

#### H SAILA:

##### **Bestelako testu arau-emaileak:**

- 4/2020 Foru Lege-dekretua, apirilaren 29koa, premiazko neurriak onesten dituen koronabirusaren (Covid-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko. Osoko Bilkurak baliozkotu du (13. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Kontingentzia Plana, Nafarroako Parlamentuan jarduera presentzialera itzultzeari buruzkoa.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko maiatzaren 8an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**Lehena.-** Nafarroako Parlamentuan jarduera presentzialera itzultzeari buruzko Kontingentzia Plana onestea. Plan hori jarraian jasotzen da:

“Covid-19 koronabirusak, Osasunaren Mundu Erakundeak 2020ko martxoaren 11n nazioarteko pandemia deklaratu ondoren, sorturiko egoerak Nafarroako Parlamentua eraman zuen elkarren segidako hainbat euste-neurri hartzera, bere autonomia instituzionala baliatuz, zeina aitortuta baitago LORAFNA-Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoko 11, 13 eta 16. artikuluetan. Hori horrela, onetsi zituen bai kontingentzia plana bai ondorengo ohiz kanpoko neurriak, Covid-19 koronabirusaren eboluzioa ekiditekoak, bateragarri eginez alarma-egoeraren neurri eta helburuak parlamentu-erakundearen iraupenarekin eta haren funtsezko eginkizunen egikaritzearekin, ezinbestekoa baitu hori Konstituzioan eta Hobekuntzan ezartzen den sistema demokratikoaren funtzionamenduak berak.

Zehazki, 2020ko martxoaren 12an, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, Covid-19 Koronabirusari aurre egiteko Kontingentzia Plana onetsi zuen, eta ondoren euste-neurri osagarriak hartu ziren, Parlamentuko lehendakariak koordinazio-taldeari entzun ondoren proposatuak.

Hori eta gero, Espainiako Gobernuak alarma-egoera deklaratu zuen, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bitartez, Covid-19ak eragindako osasun-larrialdiko egoerari aurre egiteko; horren kariaz, 2020ko martxoaren 16an ohiz kanpoko beste neurri batzuk hartu ziren, koronabirusaren hedapena eragozte aldera.

Une oro orekari eutsi nahian batetik parlamentu-jarduera mantentzearen eta bestetik langile publikoen, hautetsiriko ordezkarien eta haien zerbitzuko langileen osasuna babestearen artean, Mahaiak berrikusi egin ditu Covid-19 koronabirusari aurre egiteko euste-neurri aipatuak, martxoaren 27ko eta apirilaren 8ko eta 24ko erabakietan.

Osasun-larrialdiaren bilakaerak ezarri diren neurrien malgutzea ahalbidetu ahala, planteatu beharrekoa da jardun arrunterako itzulera mailakatua egitea, aldi berean ukitu gabe beren eginkizunak Parlamentu honetan betetzen dituzten guztien osasuna.

Horrexegatik jardun presentzialera itzultzeko Kontingentzia Plana onetsi da, aintzat harturik osasun arloko agintari eskudunen irizpideak, Nafarroako Parlamentuko Prebentzio Zerbitzuak lanpostu ezberdinei buruz adierazi dituen zehaztapen eta gomendioak eta bizitza pertsonala, familiara eta lanekoa uztartzekoak diren kasuko neurriak.

Hori guztia dela-eta, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, parlamentu-jardueraren antolaketaren alorrean dituen eskumenak baliatuz, bai eta zuzendaritzakoak eta barne-gobernatzekoak, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legean jasotako printzipioei jarraiturik eta langile publikoen, ordezkari politiko-en eta haien laguntzaileen osasuna zaintzearen haiek Legebiltzarraren egoitzako jarduera presentzialera itzultzearen ondorioz, onetsi egiten du aipatu plana.

Ondorioz, Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrak aldeko erabakia hartu ondoren, aho batez erabaki du, 2020ko maiatzaren 8an eginiko bilkuran, honako Kontingentzia Plan hau onestea.

## **Kontingentzia Plana, Nafarroako Parlamentuan jarduera presentziale- ra itzultzeari buruzkoa**

### **Lehena.- Parlamentu-jardueraren jarraipena.**

1. 2020ko maiatzaren 11tik, astelehena, aurrea jarraipena emanen zaio jarduera parlamentarioari; horretarako, jarraipena emanen zaie parlamentu-ekimenen izapidetzeari eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritako epeen kontaktetari.

2. Parlamentuko organoek zilegi dute bilkura presentzialak, ez-presentzialak edo mistoak (presentziala eta bideokonferentziazkoa) egitea.

3. Parlamentuko Mahaiari dagokio, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, osoko bilkurak eta batzordeen bilkurak zer modutan eginen diren erabakitzea.

4. Mahaiak eta Eledunen Batzarrak bilkura ez-presentzialak edo mistoak egin ahalko dituzte, hala erabakitzen badute.

### **Bigarrena.- Bilkura presentzialak nola egin.**

1. Presentzial gisa egiteko deitzen diren bilkurak Osoko Bilkuren aretoan egiten dira, eta egunean bilkura bat egiten da, beharrezkoa denean Gobernu kidez edo foru parlamentari parte-hartzailez aldatzea.

2. Osoko Bilkuraren bilkura presentzialak egiten dira parlamentariak, Gobernu kideak eta haien laguntzarako legelariak multzo murriztua osaturik. Ezein kasutan ez da gaudituko Osoko Bilkuren aretoak pertsonen arteko gutxienezko distantzia —bi metrokoa— bermatuz eskaintzen duen gehieneko edukiera, zeina hogeita bat eserlekukoa baita.

3.- Osoko Bilkuretara bertaratuko dira Nafarroako Gobernu lehendakaria eta gehienez bost kontseilari. Mahaiko bost kideak, eta haietatik Bigarren Lehendakariordea eta Bigarren Idazkaria, beharrezkoa bada, hedabideentzako eserleketan kokatuko dira. Halaber, Legelari Nagusia edo haren ordezkaria bertaratuko da, bai eta talde parlamentarioek eta foru parlamentarien elkarteak izendatutako kideak ere; azken horiek honela banatuko dira, beren garrantzi numerikoari begirata:

Navarra Suma talde parlamentarioa.: 3

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioa: 2

Geroa Bai talde parlamentarioa.: 2

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioa: 2

Podemos-Ahal Dugu Nafarroa foru parlamentarien elkarte: 1

Izquierda-Ezkerra Talde Mistoa: 1

4. Bilkura horietan, bozketa aurretiazko boto-eskuordetze bidez egin ahalko da, Erregelamenduko 94.2.b) artikulua eta lehendakariaren 2020ko martxoaren 24ko 28/2020 Erabakiak xedatuari jarraituz (Foru parlamentarien boto-eskuordetzeari buruzko erabakia, Covid-19 koronabirusak sorturiko osasun-larrialdiko krisiari erantzuteko; 38. NPAO, 2020ko martxoaren 25ekoa).

5. Batzordeen bilkuretara kide kide guztiak bertaratuko dira, bai eta haien lagunduko dien legelaria eta agerraldia egiten duen kontseilaria ere; azken horri, gehienez, lau pertsonen lagunduko diote.

### **Hirugarrena.- Bilkura ez-presentzialak eta mistoak (presentziala eta bideokonferentziazkoa) nola egin.**

1. 2020ko maiatzaren 18tik aurrera, astelehenarekin, zilegi izanen da batzorde-bilkura ez-presentzietarako edo mistoetarako dei egitea. Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduari jarraikiz egiten dira.

Bilkura horiek telematikoki egiten dira, eta haietan parte hartuko dute batzordekide guztiak, agerraldia egiten duen kontseilariak eta haien lagunduko dien legelariak. Bilkura horietan, bozketa publikoa egiten da, banan-banan deituta, Erregelamenduko 101. artikulua ezartzen duenari jarraituz.

2. 2020ko maiatzaren 21etik aurrera, zilegi izanen da osoko bilkura mistoetarako deialdiak egitea, halako moldez non alde presentzialki eta alde telematikoki egiten baitira, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduari loturik. Bilkura horietan presentzialki parte hartuko dute aurreko epigrafeko 3. apartatuan zehazturikoek, bai eta legelari nagusiak edo haren ordezkari legelariak ere. Gainerako kideen parte-hartzea bideokonferentziaz egiten da, mintzatzea egokitzen zaienean. Bilkura horietan, bozketa aurretiazko boto-eskuordetze bidez egin ahalko da, Erregelamenduko 94.2.b) artikulua eta lehendakariaren 2020ko martxoaren 24ko 28/2020 Erabakiak xedatuari jarraituz (Foru parlamentarien boto-eskuordetzeari buruzko erabakia, Covid-19 koronabirusak sorturiko osasun-larrialdiko krisiari erantzuteko; 38. NPAO, 2020ko martxoaren 25ekoa).

3. Bat-bateko matxura tekniko bat gertatuz gero, parlamentari bati eragotzi egiten diona parte hartzea, dela bideokonferentziaz dela segimen-

dua, eztabaida eta bozketa bermatzeko egokiak diren bestelako sistema teknikoen bidez, eten egiten da bilkura, non eta kasuko parlamentariak ez duen modu fede-emailean adierazten baimendu egiten duela bilkurak jarraitzea.

#### **Laugarrena.- Administrazio-epeen etetea.**

Administrazio-epeei dagokienez, etenda geratzen dira, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak hirugarren xedapen gehigarrian ezartzen duenaren arabera, (Errege Dekretuak alarma-egoera deklaratzeko, Covid-19ak eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko).

Hala eta guztiz ere, maiatzaren 5eko 17/2020 Errege Lege-dekretuko zortzigarren xedapen gehigarriak ezartzen duena aintzat hartuko da (arau horrek kulturaren sektoreari laguntzeko neurriak eta tributu-izaerakoak onesten ditu, Covid-2019aren inpaktu ekonomiko eta sozialari aurre egiteko), honako honi dagokienez: Sektore Publikoak diren entitateek sustaturiko kontratazio-prozeduretako epemuga-eteteak eta epe-gerazpenak kentzea, haien izapidetzea bitarteko elektronikoa erabiliz egiten denean. Halaber baimentzen da kontratazio-prozedura berriak hastea, haien izapidetzea ere bitarteko elektronikoa erabiliz egiten denean.

#### **Bosgarrena.- Etendako jarduerak.**

1.- Etendurari eusten zaio batzordeen lan-bilkurretan, ponentzietan, Parlamentuaren egoitzarako bisita gidatuetan, eskola-ikasleen osoko bilkura eta antzekoetan, bai eta Parlamentuaren barrenean egitekoak diren ekitaldi publiko, hitzaldi, erakusketa eta abarretan.

2.- Etendurari eusten zaio Parlamentuko langile eta kideek egoitzatik kanpo egin beharrezkoak diren jardueretan, hala nola bidaia ofizialak, bisitak, prestakuntza-ikastaro presentzialak, mintegiak, kanpo-enpresekiko bilerak eta abar.

3.- Sarbide-murritzapenari eusten zaio, bai publiko gonbidatua osoko bilkuretara etortzeari dagokionez, bai eta talde parlamentarioen bulego-etara hertsiki haien kide eta langileen multzokoa ez den edozein pertsonak eginiko bisitei dagokionez ere.

#### **Seigarrena.- Eraikinerako sarbidea mugatzea.**

1.- Parlamentuaren egoitzara sartzeko baimenduta dauden bakarrak honako hauek dira: foru parlamentariak eta talde parlamentarioen zein parlamentari-elkartearen laguntzaileak, Lehendakariaren eta Mahaiaren Kabineteko kideak, Parlamentuko langileak, jarduera parlamentarioarako

beharrezkoak diren ikus-entzunezko zerbitzuetako teknikariak, garbiketa-langileak eta Legebiltzarraren funtzionamendu normala bermatzeko ezinbestekoak diren mantentze-lanetako enprestatokoak, bai eta hornitzaileak ere, baldin eta ezinbestekoa bada haien presentzia.

Azken kasu horietan, ahalegina egiten da haien egonaldiaren iraupena ahalik eta laburrena izan dadin kasuko zerbitzua egiteko, eta aplikatzeakoak diren osasun-arauak betेरik betiere, eta egonaldia betiere egiten da haien segurtasunerako bermearekin, kutsadura-arriskua ekiditeko beharrezkoak diren bitartekoak ezarrita.

Garajera sartzeko ahaliko dira soilik baimenduta dauden pertsonak eta ibilgailuak, Nafarroako Parlamentuko garajea erabiltzeko arauetan eta Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren 2020ko urtarrilaren 20ko Erabakian ezarritakoari jarraituz.

Hedabideak baimenduta egonen dira sartzeko, hurrengo epigrafean ezarritako baldintzetan.

Eraikinean fisikoki egotera behartzen duen beste edozein ezohiko inguruabarrek beharrezkoa izanen du lehendakariaren edo idazkari nagusiaren baimena.

Hori guztia ulertzen da ezertan galarazi gabe Foruzaingoak eraikina zaintzeko egiten duen lana.

#### **Zazpigarrena.- Hedabideak.**

1. Prentsaurrekoak presentzialki edo bideokonferentzia bidez egiten dira. Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, behar den aurrendenboraz zehaztuko du nola egiten diren.

2. Bideokonferentziazko prentsaurrekoak osoko bilkuren aretotik egin eta streaming bidez eskainiko dira Parlamentuaren web-orriaren bitartez, eta hedabideek modua izanen dute Prentsa Zerbitzuaren bitartez edo, ahal denean, bideokonferentzia bidez, galderak egiteko.

3. Hedabideak fisikoki bertaratuta eginiko prentsaurrekoak astelehen eta ostegunetan egiten dira, Legebiltzarreko atalondon. Beharrezkoak izanen dira alde aurreko kreditazioa eta bertartze-konfirmazioa, gunean segurtasun-neurriak betetzeko egokitzapenak egin eta betiere bertartze aldera pertsonen artean bi metroko gutxieneko distantzia dagoela. Horretarako, hizlariaren mintzatokiaren aurrean jarriko dira ekitaldirako egiaztatu diren pertsonentzako besaulkiak, distantzia horren arabera.

Halaber, mahai bat prestatuko da, non korrespontsalek gel hidroalkoholikoa izanen duten beren grabazio-tresnak eta eskuak desinfekta-

tzeko, prentsurrekoa amaitu aurretik eta ondoren.

Agerraldira bertaratzen diren hedabideek Nafarroako Parlamentuari bermatu beharko diote egiaztatzen duten langileek ez daudela Covid-19ak kutsatuta, eta kutsatuta egonez gero uko egingen diote kasuko langilea ekitaldira bidaltzeari, eta haren ordezkari beste korrespondentsal bat bidaliko dute. Bestalde, osasun-agintaritzaren gomendioak eta, hala badagokio, Ganberako zerbitzuek egiten dituztenak bete beharko dituzte.

4. Nafarroako Parlamentuko komunikazio zerbitzuak banatuko ditu bilkuretako argazkiak. Horrek ez du eragotziko Mahaiak beste hedabide batzuei bertaratze-baimena ematea, aldez aurreko eskaera tarteko eta Osoko Bilkuren aretoaren gehieneko okupazioa zainduta, segurtasun neurriak eta gutxieneko distantzia bermatuz. Bi kasuetan, pertsonen arteko gutxieneko distantzia bi metrokoa izanen da, eta beren lana egiteko behar duten gutxieneko denbora eman beharko dute parlamentu-egoitzan.

5. Telebistako irudiak Legebiltzarreko Mahaiak aldez aurretik baimendutako hedabide baten bidez emanen dira, eta horrek gainerako estatu- eta toki-telebistei helaraziko dizkie.

#### **Zortzigarrena.- Babes-neurri orokorrak.**

1. Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak proposatuta eta Legebiltzarreko Segurtasun eta Osasun Batzordeari entzun ondoren Mahaiak erabakitzen dituen babes-neurri orokorrak aplikatuko dira Covid-19arekin kutsatzeko arriskuari aurre egiteko.

2. Bereziki, antolamendu-neurriak ezarriko dira, hala nola telelana, lanaldiaren ordutegi-malgutasuna eta langileen errotazioa, plan honetan xedatuari jarraikiz.

3. Neurri horiek guztiak posta elektronikoko bidez jakinaraziko zaizkie Legebiltzarreko langile guztiei, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta langileen iragarki oholean argitaratuko dira.

4. Foru parlamentariak eta talde parlamentarioen eta foru parlamentarien elkartearen laguntzaileak eta Lehendakartzaren eta Mahaiaren Kabineteko kideak erakundera sartu ahalko dira eta bertan gelditu, baimena eskatzeko beharrik gabe, lanegun guztietan; baina gomendatzen da ahalik eta laburren izatea egonaldia. Betiere, talde parlamentarioen bulegoetan bermatu egin beharko dira segurtasun neurriak eta bi metroko gutxieneko distantzia egotea pertsonen artean; bestela, maskara erabili beharko da.

Lan-jarduera presentzialera itzultzeko protokoloa errespetatu beharrekoa izanen da aplikatzekoa zaion orotan, bai eta Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak eta Legebiltzarreko Segurtasun eta Osasun Batzordeak gomendatutako segurtasun neurri guztiak ere. Era berean, talde parlamentarioei eta foru parlamentarien elkarteari gomendatzen zaie beren eginkizunak ahal den neurrian telelanean bete ditzaten.

#### **Bederatzigarrena.- Langileak lan presentzialera pixkanaka itzultzeko neurriak.**

1. Lan presentzialerako itzulera pixkanakakoa izanen da, eta Nafarroako Parlamentuko Mahaiak Eledunen Batzarrarekin adosturik jarduera parlamentarioari ematen dion heinari egokitu. Unean-unean aplikatzekoak diren prebentzio-neurriak errespetatuko ditu, bai eta ezartzen diren lan presentzialeko ordutegiak ere. Parlamentuko espazioek bete egin beharko dituzte osasun-agintaritzak ezartzen dituen pertsonarteko distantzietan buruzko betebeharrak, kutsadurak ekiditearren eta Parlamentuko langileentzako ahalik eta arrisku txikiarekin egin daitezela lanak.

2. Covid-19agatik kutsadura-arriskuaren ondoriozko egoerak dirauen bitartean, Legebiltzarreko langileek zilegi izanen dute beren eginkizunak ordutegi-malgutasunez betetzea, telelanean nahiz presentzialki, Plan honek xedatzen duenari jarraituz.

3. Telelana posible izan ez eta jarduera parlamentarioak ez duenean beharrezko egiten langile fisikoki Legebiltzarreko egoitzara bertaratzea, ezinbesteko eginbehar gisa joko da langilea bere etxean egotea, Nafarroako Parlamentuko funtzionarioen opor, lizentzia eta baimenen Erregelamenduko 28. artikuluan xedatuari jarraikiz.

4. Legebiltzarreko langileak behartuta egonen dira Nafarroako Parlamentuko Mahaiak onetsitako Lan-jarduera presentzialera itzultzeko protokoloan jasotako neurriak betetzera.

#### **Hamargarrena.- Telelana.**

1. Telelantzat ulertzen da lantokitik kanpoko zerbitzu-ematearen modalitatea, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzearen bitartekoa.

2. Telelanean jarduteko moduko lanpostuak izanen dira beren jardunak zuzenean jendaurreko arreta ematera edo parlamentu-bilkura presentzialetan laguntzera behartzen ez duenekoak, langilearen presentzia fisikoa beharrezkoa ez dutenak eta kontaktu pertsonal sarrietara behartzen duen jardunak ez dutenak. Zertzelada horien balo-



razioa betiere egonen da zerbitzuaren beharriaz netara baldintzatuta.

3. Telelana egiteko, beharrezkoa izanen da Idazkaritza Nagusiak baimena ematea. Baimen horretan zehaztuko da osoki ala partzialki egin daitekeen, kasuko zerbitzuburuak txostena egin ondoren.

4. Telelanez aritzeko baimenak ez du Nafarroako Parlamentuaren egoitzara bertaratzeko bete-beharretik salbuesten, langileari horretarako eskaera egiten dionean Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Idazkaritza Nagusiak edo hura atxikita daukan zerbitzuburuak.

5. Nafarroako Parlamentuko telelana eginen da Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen araubide horretako lanaldiaren jarduna eraentzen duten arauak betez. Aipatu arauak 2020ko martxoaren 25eko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean daude argitaratuta.

#### **Hamaikagarrena.- Ordutegi-malgutasuna eta lan-txanden egokitzapena.**

1. Ezertan galarazi gabe lanaldi-araubide arruntaren betetzea, Legebiltzarreko langileek zilegi izanen dute, Orik 14 urtera bitarteko adineko seme-alabak edo menpeko edadetuak zaintzeko, bizitza pertsonala eta lanekoa bateragarri egiteko beharrezkoa den ordutegi-malgutasunaz jardutea, bai eta lan-txanden egokitzapena erabiltzea ere, lanpostuak horretarako modua emanaz gero, aurretiaz Idazkaritza Nagusiari eskaera eginda eta haren baimena lortuta, atxikita daukan zerbitzuburuak txostena egin ondoren.

2. Aipaturiko kasuetan, langileek aukeratu ahalko dute beren lanaldia 07:30etik 20:30erako denbora-tartearen barrenean betetzea, astelehenetik ostiralera.

#### **Hamabigarrena.- Covid-19arekiko sentiberak diren langileei aplikatu beharreko babes-neurriak.**

1. Honako hauek pairatzen dituztenek osatzen dituzte Covid-19arekiko talde sentiberak: diabetesa, gaixotasun kardiobaskularra –hipertentsioa barne–, arnas gaixotasun kronikoa, immunoeskasia, edo tratamendu aktiboko faseko minbizia. Halaber, haurdunek eta 60 urte baino gehiagoko adinekoek.

2. Pertsona bat Covid-19arekiko bereziki sentiberatzen sailkatzeko, Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuko osasun-langileek pertsona hori ebaluatu eta egoki diren prebentzio-, egokitzapen- eta babes-neurriak buruzko txostena egin beharko dute. Horretarako, aintzat hartuko

dute langilearen osasun-egoeraren berezko arriskua areagotu gabe lan egitea ahalbidetzen duen baldintzarik badagoen ala ez dagoen.

3. Aurrekoa ezertan eragotzi gabe, Covid-19arekiko sentibera diren taldeetakoak diren langileek, edo Covid-19arekiko sentibera diren ahaideekin bizi direnek, zilegi izanen dute, salbuespen gisa, beren lanaldia telelanez beren etxetik betetzea, lanpostuak horretarako modua emanaz gero. Telelana posible ez denetan, langilea bere etxean egotea ezinbesteko eginbeharretzat joko da.

#### **Hamahirugarrena.- Isolamendu-egoeran dauden langileei aplikatzekoak zaizkien neurriak.**

1. Osasun-agintaritzak aurreikusitako kasuren baten ondorioz isolamendu-egoeran iraun behar duen langileari honako egoeretako bat izanen zaio aplikagarri, lehentasun-hurrenkeran:

- a) Telelan-araubideko etxealdia.
- b) Nahitaezko etxealdia, ezinbesteko eginbehar bat betetzeko baimenaren babespean.

Horrek guztiak ez du ezertan eragotziko Osasun Zerbitzu Publikoak lanerako ezintasun iragan-korra deklaratzeko langileari.

2. Isolamendu-egoera bukatuak, langilea bere lanpostura itzuliko da, Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak, kasua bada, zehazten dituen egokitzapen- edo babes-neurriekin.

#### **Hamalauugarrena.- Erregistroa eta jendearentzako arreta.**

Covid-19aren ondoriozko osasun-arriskuko egoerak dirauen bitartean, erregistro guztiak telematikoki egiten jarraituko dira, Nafarroako Parlamentuaren Erregistro telematikokoaren edo posta elektronikokoaren bitartez.

Halaber, etenda geratzen dira jendeari arreta emateko zerbitzu presentzialak. Zerbitzu horiek telefono bidezko arretaren bidez (948 209 209) eta telematikoki emanen dira, honako posta elektronikoko helbideen bitartez:

erregistroa@nafarroakoparlamentua.eus  
protokoloa@nafarroakoparlamentua.eus

#### **Hamabosgarrena.- Covid-19 koronabirusen kasuak edo berrogeialdiaren kasuak.**

Plan honek indarrean dirauen bitartean Parlamentuko langileen artean ager litezkeen positiboak edo sendagilearen aginduz berrogeialdian egon beharreko kasuak Zerbitzu Orokorretako

buruari jakinaraziko zaizkio, telefonoz edo posta elektronikoz, mezua honako hauetara helaraziz:

- Zerbitzu Orokorretako burutza: 948 209 222 edo pcello@parlamentodenavarra.es

- Idazkaritza Nagusia: 948 209 224 edo sdomenech@parlamentodenavarra.es

Egoera berean dauden foru parlamentarietako berehala emanen diote horren berri lehendakariari, posta elektronikoki bidez (presidencia@parlamentodenavarra.es), jakin dezaten eta, kasua bada, osasun agintarietako gomendatzen dituzten neurriak har daitezten.

### **Hamaseigarrena.- Parlamentuaren Liburutegiko eta Artxiboko sarrera- eta kontsultaraubidea.**

1. Liburutegiaren eta Artxiboaren funtsetarako sartzeara eta haien kontsultatzea ordutegi murriztuan egingen dira, 09:00etatik 14:00etarako denbora-tartean, komeni denaren arabera ezarritako denboraz eta zerbitzuaren instalazioetan bertako funtzionario bat beti egonda, ahalbideen arabera eta Parlamentuko lan presentzialari buruz ematen diren arauak jarraituz.

2. Bertan behera uzten da erabiltzaileek Liburutegiaren gordailura zuzeneko sarbidea izatea.

3. Bertan behera uzten da Liburutegiaren funtsak mailegatzeko zerbitzua.

4. Paper-formatukoak diren Liburutegiaren liburu eta aldizkako argitalpenen kontsulta arrunta Zerbitzuak erabiltzaileari helarazitako erreproduktzio digitalen bidez egingen da, hark eskatuta. Zerbitzuak formatu digitalean eskainiko du obraren aurkibidea, eta erabiltzaileak erabakiko du zer orrialde erreproduzitu behar diren. Orrialde horiek ezin izanen dituzte gainditu egile-eskubideak une oro babesteko beharrezkoak diren erreproduktzio-mugak. Obra baten kontsulta ahalbidetu ondoren, biharamunera arte ezin izanen da aurkeztu obra berari buruzko beste eskaerarik.

5. Bertan behera uzten da Legebiltzarren organoetako eta parlamentu-administrazioaren zerbitzuei Artxiboko paper-formatuko dokumentazioa fisikoki mailegatzeko zerbitzua.

6. Artxiboko paper-formatuko dokumentazioaren kontsulta arrunta Zerbitzuak erabiltzaileari helarazitako erreproduktzio digitalen bitartez egingen da, hark eskatuta. Eskaturiko espediente edo dokumentazioa 20 orrialde baino gehiagokoa izanez gero, Zerbitzuak horren aurkibide bat igorriko dio erabiltzaileari, hark seinala dezaten zer zati erreproduzitu beharko diren digitalki.

7. Artxiboaren eta Liburutegiaren funtsen kontsulta presentziala salbuespenezkoa izanen da, Legebiltzarreko organo eta zerbitzuen ezinbesteko funtzionamendu-premiekin beharurikoa, eta zerbitzuburuak espresuki baimendu beharko du.

Irakurgelaren kontsulta presentziala egiteko baimena duten erabiltzaileek maskara erabili beharko dute elkarren artean edo Zerbitzuko langileekiko bi metroko gutxieneko distantzia ezin mantendu daitekeenean. Halaber, kontsulta egin aurretik eta ondotik eskuak garbitu beharko dituzte Zerbitzuak eskueran ipiniko dien gel hidroalkoholikoarekin.

8. Bertan behera uzten da erakundeaz kanpo erabiltzaileen kontsulta presentziala.

9. Une bakoitzean zehazten den zerbitzuko funtzionarioek beste inork ezin izanen du egin Artxiboaren eta Liburutegiaren funtsen erreproduktzio digitala. Artxibo eta Liburutegirako sarbidea dagoen egun bakoitzean, zerbitzuburuak zehaztuko du zer pertsonak duen erreproduktzio digitalak egiteko ardura, eta zirkunstantzialki suertatzen bada pertsona hori tarte horretan ordeztu beharra, ordeztu hori espresuki baimendu beharko da, eta zerbitzuko beste funtzionario batek beste inork ezin izanen du ordeztu egin.

Erreproduktzio digitalak egiterakoan, horiek egiteko ardura duen pertsonak aurretik eskuak garbituko ditu, eta ondoren eskuztaturik suertatzen diren inprimagailu funtzioaniztunaren parteak garbituko ditu.

Debekatuta dago Zerbitzuko inprimagailu funtzioaniztuna erabil dezaten Zerbitzuari atxikita ez dauden langileek, eta aurreikusitako ordutegiez kanpo erabiltzea. Murrizketa hori adierazten duen kartel bat jarriko da.

### **Hamazazpigarrena.- Indarra hartzea.**

1. Plan honek maiatzaren 10ean hartuko du indarra, eta indarrean segituko du Mahaiak erabakitzen duen arte.

2. Planean jasotzen diren langileria-arloko neurriak ez dira kontsolidagarriak; horrenbestez, ez dira eskuratutako eskubidetzat joko sor litezkeen egoerei dagokienez”.

**Bigarrena.-** Nafarroako Parlamentuko zerbitzuburuari eskatzea plan honek indarra hartzen duenetik aurrera Idazkaritza Nagusiari proposa diezaioten, 2020ko maiatzaren 14a baino lehen, nork bere zerbitzuari atxikita daukan langileak lan presentzialera pixkanaka itzultzearen gaineko plangintza, osasun-agintaritzak ezarritako pertsonarteko gutxieneko distantziak beterik eta kasuko zereginak Legebiltzarreko langileentzako

ahalik eta arrisku txikienarekin egin daitezten sustaturik. Proposamenean zehaztu beharko da aipatu langileek nola beteko dituzten eginkizun horiek, eta adierazi beharko da telelan-araubidean edo presentzialki, ordutegi-malgutasunez, eginen diren, Plan honetan ezarritakoari jarraituz.

**Hirugarrena.-** Orokortasunez langile guztientzat mantentzea telelan-araubidea, bai eta ezinbesteko eginbeharreko egoera ere, beren eginkizunak araubide horretan bete ezin dituztenentzat, harik eta lan presentzialari dagokionez langile

guztien pixkanakako itzulera planifikatzen den arte, Plan honetan adierazitako nondik norakoen arabera.

**Laugarrena.-** Erabaki hau hurrengoei jakinaraztea: foru parlamentariei, Legebiltzarreko langilei, Foruzaingoari eta Nafarroako Gobernuari.

**Bosgarrena.-** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias



## Nafarroako Parlamentuan jarduera presentzialera itzultzeko protokoloa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko maiatzaren 8an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**Lehena.-** Nafarroako Parlamentuan jarduera presentzialera itzultzeko protokoloa onestea. Protokolo hori jarraian jasotzen da:

### “Nafarroako Parlamentuan lan-jarduera presentzialera itzultzeko protokoloa

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua onesteak sortutako egoera dela eta, Covid-19ak eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoera deklaratu baitzuen, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak osasun-larrialdiari aurre egiteko euste-neurriak hartu zituen 2020ko martxoaren 12an, Kontingentzia-planaren esparruan eratutako koordinazio-taldeari entzun ondoren eta Nafarroako Parlamentuko lehendakariak horri buruzko ebazpena eman ondoren.

Parlamentuko jarduerari berrekiteak berekin dakar parlamentuko eginkizunen ohiko kudeaketari erantzuteko behar diren langileak Nafarroako Parlamentuaren egoitzara itzultzea; hori dela eta, beharrezkoa da jarduera-jarraibide batzuk protokolizatzea, aurrez aurreko lan-jarduerara itzultzea ahalbidetzeko, aipatutako Covid-19 hori harrapatzeko arriskua ahal den neurrian saihestuko duten neurriekin. Horrenbestez, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileek bete beharreko arau hauek ezartzen dira:

#### 1.- Oro har, osasun-agintariek herritar guztientzat ezarritako zuhurtasun-neurriak errepikatzen dira. Ildo horretan:

- Sintomatologia badago (eztula, sukarra, arnasa hartzeko zailtasuna) edo kontaktu estua izan bada birusak jotako pertsonekin, lantokira ez joatea gomendatzen da, norberarentzat edo besteentzat arriskurik ez dagoela egiaztatu arte. Horretarako, langilea bere osasun-zentrora joan da osasun-azterketa bat egitera, eta jasotako edozein argibide jakinaraziko die Zerbitzu Orokorrei.

- Kolektibo kalteberatzat har daitezkeen langileek Zerbitzu Orokorrei jakinarazi beharko diete hori, telefonoz edo posta elektronikoz (948 209 222 telefonoa edo pцуello@parlamentodenavarra.es posta-helbideapцуello@parlamentodenavarra.es), eta azken hori Laneko Arriskuen prebentziorako Zerbitzuarekin riesgos@navarra.esharremantetan jarri beharko da, riesgosl@navarra.eslan egiten jarraitzeko baldintzak zehazteko, bai eta aplikatu beharreko prebentzio-neurri gehigarriak zehazteko ere.

- Sintomak langilea lanpostuan dagoenean agertzen badira, aurrez emandako maskara erabiltzeko eskatuko zaio, eta berehala bidaliko zaio osasun-zentrora. Era berean, zapiak edo erabiltako beste produktu batzuk bota dituen poltsa edukiontzitik isolatuko da, eta bigarren poltsa batean sartuko da, itxiturarekin, eta edukiontzian utziko da.

- Beste pertsona batzuekiko distantzia mantenduko da (ahal dela, bi metroko tartetik gora).

- Begiak, sudurra eta ahoa ukitzea saihestuko da, eskuek birusaren transmisioa errazten baitute.

- Ahoa besaurrearekin edo zapi batekin estali da, ez tul edo doministiku egitean.

- Erabili eta botatzeko zapiak erabiliko dira arnas higienerako, eta erabili ondoren zakarrontzira botako dira.

- Eskuak eta eskumuturrak urez eta xaboiz maiz garbitzea lehenesten da, gel hidroalkoholikoa erabiltzearen gainetik. Hala ere, soluzio hidroalkoholikoko gelak izanen dira eskuak garbitzeko eraikineko sarreran (Foruzaingoa), Osoko Bilkuren Aretoko sarreran (jarduera parlamentarioa dagoen egunetan), erregistro-bulegoan, gelazainen bulegoan eta liburutegian, bai eta, hala bada, gogio, langile-dentsitate handiena aurreikusten den edo komunetatik urrun geratzen diren lekuetan ere.

- Azazkalak motz edukitzea gomendatzen da, eta ez da gomendatzen eraztunak, eskumuturrekoak, erlojuak edo eskuak eta eskumuturrak garbitzea oztokatzen duten bestelako apaingarriak erabiltzea.

- Eskuetan ebakiak, zauriak edo lesioak izanez gero, estali apositu iragazgaitzekin.

- Ez da kontaktu fisikoa eragiten duen hezibide- edo afektu-adierazpenik eginen.

#### 2.- Bestalde, osasun-krisi honen hasieratik hartutako zuhurtasun-neurriekin bat etorritik, honako hauei eusten zaie:

- Telelana sustatzen da ahal den zerbitzu eta lanpostuetarako, bertaratzen diren langileak ezin-

bestekoak baizik izan ez daitezzen, bai eta langileen txandakatzea ere.

- Positibo oro edo berrogeialdi baten preskripzioa telefono dei bidez edo posta elektronikoko bidez jakinaraziko da, honako hauei zuzenduta:

- Zerbitzu Orokorretako burutza: 948 209 222 edo pцуello@parlamentodenavarra.es

- Idazkaritza Nagusia: 948 209 224 edo sdomenech@parlamentodenavarra.es

- Ordutegiaren eta lanaren malgutasunari eusten zaio.

- Gelazainen segurtasun-jarraibideei eutsi zaie Ganberaren saioen arreta-lanetan (erantsita doa).

### **3.- Lan-jarduera presentzialera itzultzeko, neurri hauek ezartzen dira:**

a) Neurri orokorrak:

- Sarreran, irteeran, eremu komunetan eta aldageletan jende-pilaketak saihestuko dira. Ondorio horietarako, bi metroko segurtasun-tartea mantendu beharko da. Langile batek baino gehiagok lan egiten duten bulegoetan distantzia horiek errespetatu beharko dira. Aldageletan, zerbitzu osoa ez da aldi berean erabili behar; hala, pertsona bat barrura sartzen denean, gainerakoek kanpoan itxaron beharko dute aretotik irten arte.

- Antolamendu-neurriak ezarriko dira, lanerako sartu-irteera mailaka egin ahal izateko.

- Lan-atsedena mailaka antolatuko da, pilaketak saihesteko.

- Osasun-agintariek gomendatutako oinarritzko prebentzio-neurriei buruzko informazio-kartelak jarriko dira bulego guztietan.

- Bulegoen eta administrazio-unitateen arteko dokumentazio-trukea saihestuko da. Dokumentuak erreproduzitzeko, komunikatzeko eta sinatzeko baliabide digitalak erabiliko dira. Dokumentazioa nahitaez manipulatu behar bada, ahal den guztian zainduko da eskuetako higijena, eta eskuak jarduketara baino lehen eta ondoren garbituko dira.

- Ez da gomendagarria jende guztiak eskularruak erabiltzea. Arau orokor gisa, eskularruak jartzearen aurretik, eskuetako higijene egokia eta aldizkakoa lehenesten da.

- Erabili eta botatzeko eskularru-kaxak jarriko dira Osoko Bilkuren Aretoaren sarreran (jarduera parlamentarioa dagoen egunetan), fotokopiagailugelan, erregistroko bulegoan eta liburutegian, bai eta erabiltzea aurreikusten den lekuetan ere. Halaber, erabili ondoren botatzeko paperontziak

jarriko dira, bai eta horiek noiz erabili, jarri eta kendu behar diren adierazten duten azalpen-kartelak ere.

- Zerbitzu Orokorretako langileek IIR kirurgia-maskara bakarra emanen diote langile bakoitzari, eta maskara berriak entregatuko dizkiote behar-beharrezkoa denean bakarrik. Entregatzeko unean, langileak gutun-azal edo poltsa estankotzatean gordeko du, erabili arte behar bezala zaintzeko. Maskarak neurri osagarritzat baino ez dira hartu behar, eta inoiz ez prebentzio-neurri orokorren ordezkotzat: urruntze fisikoa, eskuen higijena, eta aurpegia, sudurra, begiak eta ahoa ukitzea saihestea. Maskarak erabiltzea soilik gomendatzen da prebentzio- eta antolaketa-neurri guztiak hartu arren pertsonen arteko 2 metroko tartea bermatu ezin denean. Erabilera egokia funtsezkoa da neurria eraginkorra izan dadin. Maskara horiek erabilera bakarrekoak dira, eta ez dira ez garbigarriak, ez berrerabilgarriak.

- Uniformea erabiltzen duten langileek (gelazainek eta mantentze-lanetarako laguntzaileak) mailaz maila erabili beharko dituzte aldagelak, eta beren kaleko arropa lanean erabiltzen dutenarengandik bereizita gorde beharko dute.

- Eraikinaren hozte/giroitze-sistemaren aireztatzeko-maila areagotuko da.

- Lantokian ari diren langile guztientzat segurtasun neurri berak hartuko dira, aintzat hartu gabe zer enpresatarako egiten duten lan (jarduera enpresarialen koordinazioa), bai eta Foruzaingoarentzat ere.

b) Parlamentuko bilkurak eta jarduerak:

- Osoko Bilkuraren, batzordeen eta Parlamentuko zuzendaritza organoen bilkurak osoko bilkuren aretoan eginen dira soilik, eta egunetan bat eginen da gehienez ere, parte hartu behar duten gobernukideak edo foru parlamentarioak aldatzen direnean.

- Prentsaurrekoak modu presentzialesan edo bideokonferentzia bidez eginen dira, Nafarroako Parlamentuko jarduera presentzialera itzultzeari buruzko Kontingentzia Planean xedatutakoaren arabera.

- Nafarroako Parlamentuko komunikazio zerbitzuak banatuko ditu bilkuretako argazkiak. Horrek ez du eragotziko Mahaiak beste hedabide batzuei bertaratze-baimena ematea, aldez aurreko eskaera tarteko eta Osoko Bilkuren aretoaren gehieneko okupazioa zainduta, segurtasun neurriak eta guztieneko distantzia bermatuz, Nafarroako Parlamentuko jarduera presentzialera itzultzeari buruz-

ko Kontingentzia Planean xedatutakoaren arabera.

- Telebistako irudiak legebiltzarreko Mahaiak aldez aurretik baimendutako hedabide baten bidez emanen dira, eta horrek gainerako estatuko eta tokiko telebistei helaraziko dizkie.

- Soinu teknikariek bi metroko distantzia gorde beharko dute, eta ezinezkoa den uneetan maskara erabiliko dute. Era berean, eskularruak erabiliko dituzte ekipo tekniko komunak erabili behar badituzte. Gel hidroalkoholikoarekin garbitu beharko dituzte erabiltzen duten kotsola edo gailuak, saioa amaitu aurretik eta ondoren.

- Lehendakaritzaren mahaian, Gobernuaren bankadan eta Osoko Bilkuren Aretoko hemizikloaren goiko arkuan, bilkuran erabili behar diren eserlekuak baino ez dira jarriko, bilkura amaitzean garbitu ahal izateko.

c) Eraikinean sartu eta bertan mugitzea:

- Nafarroako Parlamentuaren egoitzara ate nagusitik sartuko da, goizeko 7:25etik aurrera. Ordu horretarako martxan egonen dira ate automatikoak. Ordu hori baino lehenago ezin izanen da eraikinean sartu, baimendutako salbuespenak izan ezik. Irekitze-ordutik aurrera, segurtasun distantzia gordeta sartu beharko da. Ate automatikoak aktibaturik egonen dira lanaldi osoan, eta alboetako ateak ezin izanen dira erabili, itxita egonen baitira.

- Sarreran toki bat prestatuko da mezulariek paketeak uzteko. Paketea emateko sinadura beharrezkoa bada, Foruzaingoak mezulariari esanen dio bertan geratzeko legebiltzarreko langileak bertaratu arte paketea entregatu dela ziurtatzera.

- Igogailuen eta karga-jasogailuen erabilera saihestuko da, fardelak edo paketeak eraman behar direnean izan ezik, bai eta haurdunen eta desgaitasunen bat edo antzeko ezintasun-egoeraren bat duen pertsonen kasuan ere. Edonola ere, igogailuan pertsona bakarra sartuko da joan-etorri bakoitzean. Aipatutako kasuetan izan ezik, eraikinean zehar mugitzeko eskailerak baliatuko dira.

- Ahal den neurrian irekita egonen dira bulego eta geletako ateak, ateen eskutokiak eta heldulekuak ukitzea saihesteko, kutsatuta egon baitaitezke.

- Debekatuta dago ondoko geletan sartu eta horiek erabiltzea: sotoko kafetegia, lehen solairuko prestalekua, batzorde gelak eta batzorde gelen artean dagoen transkripzioen gunea, bigarren solairuan. Gainerako bilera eta hitzaldi aretoak

erabiltzeko Parlamentuko Mahaiaren baimena beharko da.

- Zerbitzu Orokorretako buruari eman beharko zaio gune eta bulego ororen erabileraren berri, informazio hori garbiketa zerbitzuei helaraz diezaien, haiek arduratuko baitira erabilitako gelak desinfektatzeaz.

d) Bulegoak:

- Ireki daitezkeen leihoak dituzten bulegoak eta gelak egunero gutxienez 10 minutuz egurastuko dira airea modu egokian berriztatzeko.

- Erabilera kolektiboko bulegoetan langile bakoitzak okupatu beharreko eremu funtzionala mugatuko duten marrak ezarriko dira zoruan, segurtasun distantzia gordetze aldera.

- Ahal den heinean, Laneko Arriskuen prebentziorako Zerbitzuak bulego bakoitzeko ezarritako gehieneko okupazioa errespetatuko da eta segurtasun neurriak eta pertsonen arteko gutxienezko distantzia, bi metrokoa, bermatuko dira. Distantzia mantentzea ezinezkoa denean maskara erabiliko da.

- Erregistroko bulegoan manpara bat jarriko da unitate horri atxikitako langileen osasuna zaintzeko xedez.

- Erabili beharreko materiala (boligrafoak, liburuak...) erabilera pertsonalekoa izanen da eta hura konpartitzea saihestuko da. Langile bakoitzak berari esleituriko ekipo informatikoa eta telefono terminala besterik ez du erabiliko.

- Erabilera pertsonalekoak ez diren bitartekoen kasuan (telefonoa, entzungailuak, teklatura, sagua eta telefonoa), erabili ondoren gel hidroalkoholikoarekin desinfektatu behar dira betiere, lanaldiaren hasieran eta amaieran.

- Bi langilek lanpostu bera erabiltzea saihestuko da. Ezinezkoa bada, bitarteko guztiak erabili aurretik eta ondoren desinfektatu beharko dira.

- Garbiketa zerbitzuak egiten duen desinfektazioaz gain, gomendatzen da langile bakoitzak garbi eta desinfektaturik mantentzea bere lanpostuko bitarteko guztiak. Halaber, ahalik eta material gutxien utziko dira mahai gainetan eta apaletan eta ahal den neurrian material guztia artxibatuko da.

- Apaingarriak eta beharrezkoak ez diren osagaiak (gozokiak, ur botilak, edalontziak...) kenduko dira.

- Garrantzitsua da lanaldiaren amaieran lanpostua ahalik eta hustuen geratzea, garbiketa zerbitzuaren lana errazte aldera.

**4.- Indarraldia.**

Protokolo hau maiatzaren 10ean sartuko da indarrean eta horrela jarraituko du Mahaiak besterik erabaki arte.

Indarraldian zehar egokitzen eta eguneratzen joanen da, osasun arloko agintaritzak koronabirus berriarengatik infekzioaren bilakaeraren eta hari buruz eskura duen informazioaren arabera emandako gomendioei jarraikiz”.

**Bigarrena.-** Erabaki hau hurrengoei jakinaraztea: foru parlamentariei, Legebiltzarreko langileei, Foruzaingoari eta Nafarroako Gobernuari.

**Hirugarrena.-** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

(Oharra: Gelazainen segurtasun-jarraibideei buruzko eranskina eskuragarri dago Nafarroako Parlamentuaren intraneten).

---

**H saila:**  
**BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK**

---

**4/2020 Foru Lege-dekretua, apirilaren 29koa, premiazko neurriak onesten dituen koronabirusaren (Covid-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko.**

*OSOKO BILKURAK BALIOZKOTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2020ko maiatzaren 7an egindako bileran, baliozkotu zuen 4/2020 Foru Lege-dekretua, apirilaren 29koa, premiazko neurriak onesten dituen koronabirusaren (Covid-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko. Foru Lege-dekretua 2020ko maiatzaren 4ko 91. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta 2020ko maiatzaren 4ko 49. Nafarroako

Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1. artikuluan ezarritakoa betez, erabaki hau argitara dadin agintzen dut.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---







